



Proiektu zbk.: 2016/14

Enpresa: **INITHEALTH, S.L.**

Osasun eta ongizatearen arloan konponbide teknologikoak garatzea

Helburua eta aurkezpena: osasuna kudeatzeko eta bizi-ohitura osasun-garriak sustatzeko plataforma globala da. Inithealth plataforma globala eta modularra da, PHRtik hasi eta arreta soziosanitarioa bideratzeko sistemetara bitarteko prozesu guztiak biltzen dituen, nola online hitzorduetarako moduluak, hala bizitza osasungarriko eta kirolerako ohi-turak sustatzeko moduluak. Plataformaren barruan hizkuntza anitzeko web bat dago, erabilgarritasun-teknikak erabiliz diseinatua, eta Android nahiz iOS sistema eragileetarako app bat ere bai.



Egindako hobekuntzak: plataforman 5 osasun programa pertsonalizatu daude eskura, pertsona bakoitzaren ezaugarri fisiko eta psikologietara egokituta: 1- Prebentzio kardiobaskularra, bizitza aktiboa, diabetesaren prebentzioa eta jarraipena, elikatzeko osasungarria. 2- Merkatuko



app eta eramangarri nagusiekin integratu. 3- “Smart band” pertsonalizatua izateko aukera, jarduera fisikoa eta loaren kalitatea neurtzeko gai dena. 4- HRA bat (Osasun Arriskuaren Ebaluazioa) du eskura, osasuna sustatzen duen arloan gehien erabiltzen diren tresnetako bat, osasuna sustatzeko programetan lehenengo pauso bihurtu dena. 5- Erabiltzaile bakoitzarentzako larrialdietarako QR bat du eskura.

Bereizgarriak: % 100 pertsonaliza daitekeen plataforma bakarra da Ealth, eta ehealth esparruan prozesu guztiak bere baitan hartzen ditu. PHR, Wellness, eramangarrien jarraipena eta beste batzuekin integraztea: Diagnostiko zerbitzuak, ospitale zentroak... Inithealth modulagarria da eta moduluak ad hoc sortzeko eta garatzeko aukera ematen du.

Lortutako emaitzak: alde batetik, prebentzio-mailan enpresek tresnak eta soluzioak eskaintzen dizkiete euren langileei, aurkezten dituzten osasun-programak jarraitzen eta bukatzen lagunduz. Langileek ongizateko informazioa eskura dute, eta euren eboluzioa ikus dezakete, era eguneratu, lagunkoi eta berritzailean. Beste alde batetik, osasun-arloan emaitzak epe ertain eta luzean ikusten diren arren, egia da erabiltzaileei proposatutako erronkak bete egiten direla.